

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Besoak zabalik dituzten familiak behar dira

*Laparra lehendakariordeak familia-harreraren aldeko publizitate kanpaina aurkeztu du, Nafarroako hiru familia ardatz hartuta*

Astelehena, 2018.eko maiatzak 7

Eskubide Sozialen lehendakariorde Miguel Laparrak *Besoak Zabalik* lemapeko kanpaina aurkeztu du gaur goizean, babesgabetasun-egoeran dauden adingabeei egoera horrek dirauen bitartean harrera emateko prest dauden familiak bilatzeko asmoz. Kanpainak 6 urteko haurren beharrak estali nahi ditu nagusiki, izan ere, legeak "oso lehentasunezkoztat" jotzen du familia-harrera, egoitza-harreraren gaineratik, haur horien garapena bermatzeko.

Publizitatearen sortzaileek errealitatea hartu dute abiapuntutzat kanpainaren lema lantzeko,aldi batez bada ere harrera-familia behar zuten neska-mutilei besoak ireki dizkieten hiru familia nafarren kasuak aurkeztuz.

Kanpaina telebistaz, Nafarroako prentsaz, tokian tokiko irratiez eta sare sozialen bitartez zabalduko da, familia biologikoak ezin arta dezakeen haurren bat hartzeko prest dauden familien kopurua areagotzeko asmoz.

Aipatutako hiru familia nafarrak dira kanpainaren ardatz eta protagonista nagusiak: Josema eta Susana tuterarrak, 12 urteko haur bati harrera egiteagatik; Iruñeko Elena eta Marta, 14, 11 eta 10 urteko hiru anai-arrebari besoak eta etxeko ateak irekitzeagatik; eta Gerardo eta Eguzki, Etxarri Aranazkoak, beraien bizitza eta bi seme-alaba biologikoena harreran hartutako 4 urteko neskato batekin partekatzeagatik.

Helduek esaldi batean laburbildu dute beraien esperientzia. "Haren gelan sartu eta nolako aurpegia izango zuen pentsatzen hasi nintzen", gogoratu dute Josemak eta Susanak. Gerardok eta Eguzkiren hitzetan, "bi seme-alaba biologiko dauzkagu eta oso garrantzitsuak dira ikasten ari diren balioak". Azkenik, Elenak eta Martak ziurtatu dutenez, "maitasun



Publizitate kanpainaren irudi adierazkorra.

gehiago daukagu emateko, askoz ere gehiago dugu emateko, ez dugu guretzat atxiki behar”.

Kanpaina indartzeko, berriazko informazioa duen [webgunea](#) ere ireki da, harrera-prozesuei buruzko oinarrizko informazioa nahiz adingabeei harrera egin edo egiten dieten bikoteen testigantzak bilduz.

### 2017ko balantzea

Lehendakariordeak, halaber, familia-harreraren iazko balantzea aurkeztu du. Hartara, 2017an, 223 adingaberi harrera egin zitzaizen; horietatik 149 familia zabalarekin zeuden (haurren senideak; bereziki, aiton-amonak eta osaba-izebak) eta 74 neska-mutil beste familia batzuekin.

38 adingaberen kasuan, harrera-familia berriak bilatzeari ekin zioten; horietatik 14k ez zuten gertuko seniderik eta kanpoko familia bat behar zuten. Gainerakoek (24) beste senide batzuekin harreraren egoteko aukera izan zuten.

Urte berean, 98 neska-mutil sartu ziren egoitza-harreraren. Kasu batzuetan, diziplina anitzeko taldeek modalitate hori gomendatu dute, baina beste kasu batzuetan familia-harrera gomendatuko zuketena horretarako aukerarik izan balitz. Kontuan izan behar da, egoitza-harreraren aldean, familia-harrera are lehentasunezkoagoa dela neska-mutilen interesetarako, ingurune afektibo eta erreferentzial sendoagoak eskaintzen dituen neurrian.

Familia eta Adingabeen Zuzendariordeetatik, Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziak nabarmendu du, harrera-familiak aurkitzeko zailtasunik handiena 7 urtetik gorako adingabeei eta berriazko beharrak dituzten anai-arrabei dagokiela.

Nafarroan 1999az geroztik [harreraren bilakaera](#) egonkorra izan da, 2004an eta 2010ean izandako goranzko bi inflexio-punturekin eta zertxobait behera eginez azken bi urteotan.

### Harrera

Familia-harrera haurrak eta nerabeak babestea xede duen neurria da, baldin eta edozein arrazoiengatik jatorrizko familiek haien beharrei erantzuteko gai ez badira.

Adingabea da familia giroan hazi eta hezteko eskubidea duena, beharrezko ondoriozko eskubidea, alegia. Nafarroako Gobernuak eskubide horren estalduran parte hartzen du, familia berria bilatuz, harrerak dirauen bitartean familiari zein adingabeari zuzendutako laguntza eskainiz, eta familia biologikoarekiko bisitak antolatuz, lotura hau etengabe mantentzen saiatzen baita, adingabearen mesedetan.

Harreraren iraupena, jatorrizko familiak seme-alabarekiko bereizketa eragin duten arazoak konpontzeko behar duen denboraren arabera da. Harrerak ohikoak izan daitezke, hau da, behin-behinekoak (gehienez, bi urtez) edo behin-betikoak (jatorrizko familiarekin itzultzeko aurreikuspenik gabe), baina badira larrialdiko harrerak (hiru hilabete ingurukoak, balorazioa landu eta neurririk egokiena erabakitzen den bitartean) eta harrera espezializatua (arreta psikoedukatio espezializatuagoa behar duten adingabeei zuzendutakoa, berriazko prestakuntza eta gaikuntza eskatzen duena).

Kanpaina honetan, Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziak asteburu nahiz oporraldietarako arreta partziala emateko prest dauden familiak lortu nahi ditu, adingabeei beste erreferente batzuk eskaintzeko asmoz.

### Edozein familia egokia da?



Kanpainaren beste irudi bat.

